

Gu *Ekin!* taldea gara eta Estela, Nahia, Bidatz eta Jonek osatzen dugu talde hau. Laurak haur hezkuntzako goi-mailako ikasleak gara, beraz, gure jakintzak martxan jartzeko, haurrei zuzendutako enpresa bat sortzea erabaki dugu.

Taldeko partaide bakoitza herri batean bizi gara eta adin desberdinak ditugu: Estelak 19 urte ditu eta Artean bizi da, Nahiak 19 urte ditu eta Atxondon bizi da, Bidatzek 20 urte ditu eta Durangon bizi da, baina Lekeition ere denbora asko igarotzen du, eta azkenik, Jonek 20 urte ditu eta Durangon bizi da ere. Herri desberdinetakoak garela aprobetxatuz, kultura aniztasunaren inguruko begirada zabaltzeko aukera izan dugu eta konturatu gara aukera ona dela bakoitzak bere herrian kultura desberdinei buruz informazioa jasotzeko. Hau egin eta gero, gizartean kultura aniztasunarekiko hutsune handia dagoela ondorioztatu dugu. Horregatik, hurrekin txikitatik gai hau lantzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu eta “Kultuteka” proiektua sortuko dugu.

Gure ustetan, haurrak ikasteko modurik onena jolasaren bidez da. Gainera, gure inguruan ludoteka eza dagoela ikusi dugu, beraz, jolas librearen bitartez kultura desberdinak lantzeko aukera eman nahi dugu denon eskura egongo den ludoteka bat sortuz.

